



# Sopuerta

*Sopuerta ezagutzea berezitasunez betetako lurra deskubritzea da. Lur honek aparteko historia gordetzen du, bai eta Bizkaiko eta Euskal Herriko garapenean modu esanguratsuan lagundu zuen iraganaldi bizia ere.*

## SOPUERTAKO JATORRI HISTORIKOA

Lope García de Salazarren arabera eta Aita Lozanoren "Nobleza general de la Península" liburuan agertzen denaren arabera, K.a. 1304. urtean Tebas hirian jaiotako Hércules Alcides izenekoak Sopuerta sortu zuen, Greziako itsas armadarekin Kantauri Itsasora heldu ondoren. Beranduago, Dorotea izeneko menditarren zerbitzariarekin ezkondu zen eta Alcedo Dorrea eraikiarazi zuen. Dorre honek haran guztia eta beranduagoko erromatar galtzada oinperatzen ditu.

Bizkaiari eta Enkarterriri buruz gordetzen den dokumenturik zaharrenaren historian agertzeko ohorea du Sopuertak. Izan ere, 900. urte inguruan idatzitako "Crónica de Alfonso III" ezagunean, lehenengo aldiz "**SUBPORTA**" bezala agertzen da izendatuta. Alfonso III.aren kronika hauek 672. urtetik 866. urtera doan garaikoak dira, hau da, errege bisigodoen azken erregealditik Asturiasko lehenengo hamaiken erregealdietara. Kronika hauen atal batean, Alfonso I.aren (739-757) kanpaina militarrek azaltzen direnean, Subporta (Sopuerta) eta Carrantia (Karrantza) herriei buruzko aipamena agertzen da. Eta itxuren arabera, hauetaz hitz egiten duenean, gaur egun Karrantzak eta Sopuertak dituzten baino eremu zabalagoei buruz ari da.

".....En aquel tiempo se pueblan Asturias, Primorias, Livana, Trasmera, **Subporta**, Carrantia, Bardulies que ahora se llama Castilla y la parte marítima....."

## HISTORIASA

Lurralde hauetan gizakiak bizi zirela egiaztatzen duten aztarnarik zaharrenak Frantsesen Koba (Artatxo mendia) parajearen topatu ziren. Paraje honetan, arkeologoek Goi Paleolitikoan (K.a. 35.000-9.500) kokatzen dituzten hezurak eta silexezko lanabesak agertu ziren.

Bestalde, **Neolitikotik Brontze Arora** (K.a. IV. mendetik I. mendera) Alén mendi inguruan egon ziren estalperik gabeko zenbait kokaleku ere nabarmendu behar ditugu. Hauetatik, gutxienez, hamar Sopuertako lurretan egon ziren. Aipatzekoa da, besteak beste, Burdin Aroko **Iiso-Betaio** kokalekua. Berau biribilean jarritako etxolez osatutako gunea izan zen. Erdian bizileku bat egoten zen, edo bestela, etxolaren zoruaren inguruan bizileku bat edo bi. Orain arte, adituek lurralde hauetan urtaroen arabekoak ziren kokalekuak egon zirela baieztatu ahal izan dute. Esan bezala, kokaleku hauek guztiak Alén mendiaren inguruan egon ziren, mendi honen lurra artzaintzarako oso aproposa zelako. Zehatzagoak diren indusketek ere bazter honetan gizakia bertan bizi izan zela egiaztatzeko balio izan dute.

Gainera, inguru honetan bertan hainbat **hilobi-monumentu** (17 tumulu eta dolmen, 2 menhir eta cronlech 1) ere aurkitu dira, horregatik berau Bizkaiko toki megalitikorik garrantzitsuenak da.

Hauekin batera, El Hoyo, La Cilla I eta La Cilla II hilobi-kobatan ere hiru aztarnategi topatu dira. La Cilla IIko azken horretan, 57 gizakiren aztarnak antzeman ziren, aurkitzeko zailak diren koba txikietan antzinako biztanleek zenbait ehorketa egin zituztelako.

La Cilla II honetako lurperatzeetan hilobi-horidurak ere ugari dira: hezurrezko apaingarriak, silexezko puskek, zeramika zatiak eta Euskal Herrian aurkitutako botozko aizkora multzorik garrantzitsuenetako bat.

Aztarna hauek guztiek, beraz, pentsarazten digute Sopuertako mendi hauetan, noizbait, artzainak bizi izan zirela, urtaroen arabera artzaintzan aritzeko. Eta ondoren etorriko den Erromanizazio garaia artzain hauengan berebiziko eragina izan zuen.

## ERROMANIZAZIOA

Hainbat arkeologia lekukotasunek argi adierazten dutenez, garai batean, Enkarterrin erromatarrak egon ziren. Eta dakigunez, erromatar hauek inguru honetan zeuden burdin meatzeen ustiapenean aritzen ziren.


Esate baterako, **Abellanedako Miliarioak** edota **Zaldun (Gordexola) aurkitutako Hilobi edo Hilarriak** bertan erromatarrak egon zirela aditzera ematen dute, eta gauza bera esan dezakegu **Arenaza Koban (Galdames)** aurkitutako zeramika puska eta apaingarriei buruz. Erromatarrek Flaviobrigan (Castro Urdiales) kolonia bat zeukaten, eta ondorioz, Enkarterriko ingurua kolonia honen ustiapen lurraldetzat hartu zuten. Beraz, ematen du erromatarrek baso, abeltzaintza eta nekazaritza baliabideak ustiatzeaz gain, Sopuertan, Triano mendietan eta Galdamesen zeuden meatzeen aberastasuna ere ustiatzen zutela. Izan ere, horrela baieztatu dute paraje hauetan aurkitutako erromatarren burdinolen lorratzek.

Gaur egun Balmaseda, Zalla eta Sopuerta udalerririk dauden lekuetatik, antzina Pisoracatik (Herrera de Pisuerga) zetorren galtzada handiaren zati bat pasatzen zen, eta berau,

Flaviobrikan (Castro Urdiales) bukatzen zen. Beraz, Enkarterriko lurretan zegoen galtzada hau, erromatarrek inguruetan zeuzkaten kolonia eta portu garrantzitsuekin lotu behar dugu. Hala ere, badirudi, hasiera batean galtzada honek helburu militarra ere izan zuela; Kantabriako gerrazaleak euren lurraldeetan zokoratzea, hain zuzen ere. Modu honetan, galtzada Kantabriako lurraldeetatik urrun eraiki behar izan zuten; baina lurralde hau inguratuz, beranduago, menderatu ahal izateko.

Erromanizazio garaian [Pisoraca-Flaviobriga](#) (Herrera de Pisuerga-Castro Urdiales) galtzadak Hegoaldetik Iparralderaino gurutzatzen zuen Sopuerta. K.o I. mendean eraiki zuten galtzada honek itsasaldea barrualdearekin lotzen zituen, eta oraindik ere, galtza honen Muñecas eta Abellanedako Miliarioak mantentzen dira. Galtzada Sopuertara La Abellanedatik sartzen da eta bi metroko zabalera du. Galtzada harri-zola batzuek estaltzen dute. Harri-zola honek bazterretan harri handiak ditu eta erdian, aldiz, txikiagoak. Dena den, erdiko harri-zola hau beranduagokoa omen da. Sopuertan, oraindik ere, galtzada honen zati batzuk egon badaude, baina egun ikusi eta zapaltzen ditugunak XVIII. eta XIX. mendeetan egindako konponketak dira, gehienbat. Honen azpian, dirudienez, XVI. mendeko galtzada bat dago, baina ezer gutxi dakigu honi buruz. Hala eta guztiz ere, ematen du galtzada honek toki gehienetan gaur egun daukan bide bertsua jarraitzen zuela.

Beraz, galtzada honetan soldaduek, bidaiariek, salgaiek eta bestelakoek ibili behar izan zuten. Eta haiekin batera, euren ideiak eta kulturak. Ideia eta kultura hauek, zalantzarik gabe, bertan garai hartan bizi izan ziren biztanleen bizimoduan eragin handia eduki zuten.



Bestalde, antzaenez, galtzada honek Santiagoko bidea iparraldeko ibilbidetik egin nahi zuten erromesentzat ere balio izan zuen, bai eta Castro Urdialesen lehorreratu eta Frantsesen Bidea hartzeko Gaztelara joan nahi zutenentzat ere.

[Erromatar galtzada \(Abellaneda\)](#)

## ERDI AROA

Jakin badakigu XII. menderako San Martín de Carral antzinako eliza bazegoela. Alfonso VIII.ak eliza hau 1178. urtean, Burgoseko San Juan monasterioari eman zion. Ordurako, Sopuertak biztanle nahikotxo omen zituen, eta gainera, ohiko abeltzaintzaz gain nekazaritza ere garatuta omen zeukan. Baina hauetaz gain, Alén mendiaren inguruetan erromatar burdinola batzuen aztarnak ere aurkitu dira. Aztarna hauek argi adierazten dute, garai honetan Sopuertan burdina lantzen zutela, hau da, burdin horixka desegiten zutela armak eta itsas-hornidurak egiteko.

Erdi Aroko azken mendeetan, aldiz, krisi gogorra egon zen eta honek Bizkaiko familiarik boteretsuenak elkarrekin borrokatzera bultzatu zituen. Gainera, borroka hauek bertako biztanle gehienak ere barnean hartu zituen.

Berant Erdia Arorako badaukagu berebiziko garrantzia duen idazkia. Idazki hau Muskizen jaio zen **Lope García de Salazar** bandokidearen **“Las Bienandanzas y Fortunas”** ezaguna da. Honetan, Berant Erdi Aroan jasan zuten krisialdiaren ondorioz sortu ziren borrokak azaltzen ditu. Berak ere borroka hauetan parte hartu zuen, Enkarterriko leinu zaharrenetako batekoa zelako. Leinu hau Salazar-Muñatones izenekoa zen eta Sopusuertako San Cristóbal dorreko familia zen.

Garai honetan zehar, Sopusuertan inguruko leinurik garrantzitsuenen (San Cristóbal, Mendieta, Alcedo, Llano, Muñatones, Urrutia, Quintanak...) arteko hainbat borroka egon ziren. Eta ondorioz, garai gatazkatsu honen isla dira, oraindik ere, ikusi ahal ditugun zenbait defentsadorre.



Llano dorrearen armarría



La Puente dorretxea

Bestalde, Abellanedako Batzar Nagusiak ere garai honetan sortu ziren. Hasiera batean, Batzar hauek leinu ezberdinen arteko auziak eztabaidatzeko lekua izan ziren, eskualdeko erakunde kudeatzailea baino.

Batzar Nagusiei buruz daukagun lehenengo testigantza 1390. urtekoa da. Baina testigantza honetan, Batzarrak askoz lehenagotik burutzen zirela ematen da aditzera.

#### **ANTZINAKO ERREGIMENA (XVI-XIX. mendeak)**

Garai honetatik hasita eta beranduagoko hainbat mendetan, Sopusuertak Enkarterriko gidaritzan parte hartu zuen. Horretarako, Batzar Nagusiak Abellanedako haritzaren azpian (ez dago toki zehatz honen daturik) biltzen ziren eta beranduago, zuhaitzaren ondoko eraikinean. XV. menderako, gaur ezagutzen ditugun moduan zeuden eratuta Enkarterriko kontzeju ala haranak. Eta hauen artean, Sopusuerta ere bai.

Abellanedako Batzar Nagusietan Enkarterriko ondorengo kideek hartzen zuten parte:

**Gueñeseko Kontzejua, Zallako Kontzejua, Sopusuertako Kontzejua, Galdameseko Kontzejua, Gordexolako Kontzejua, Karrantzako Harana, Turtziozko Harana, Artzentales Harana eta Somorrostro Harana. Azken honek lau Kontzeju zituen: Abanto de Yuso, Abanto de Suso, Muskiz eta Abanto eta Zierbena. Honek ere beste hiru Kontzeju zituen: Santurtzi, Sestao eta Trapagaran.**

Bestalde, **Abellanedako Foruaren** bitartez, Batzar hauek justiziaren alde egiten zuten lan. Foru hau 1394. urtean sortu zen, Gonzalo Moro korrejidoreak inguru horretan nagusi ziren ohiturak idatziz jaso zituenean. Beranduago, 1503an, Forua berregin zuten eta indarrean egon zen 1576. urtera arte. Izan ere, urte honetan Bizkaiko Foruak bere barnean hartu zuen, nahiz eta bere independentzia mantendu. Horrela, Batzar Nagusietan biltzen jarraitu zuten, harik eta XIX. mendearen hasieran Jaureerriaren barruan sartu arte. [\(esteka Ondarearen ataleko Abellanedaren zatiarekin\)](#)

Leinuen arteko borroken amaieraren eta Berant Erdi Aroko krisialdiaren ostean, hazkuntza demografiko eta ekonomikoaren garaia etorri zen. Garai berri honek Sopuertan parrokia berri ugari sortu zituen. Horrela, XV. mendearen amaieratik eta XVI. mendearen hasierara, San Pedro de La Baluga, Santa María de Mercadillo, San Bartolomé de Abellaneda y Santa Cruz de Olabarrieta elizak eraiki ziren.

Bestalde, lau mende hauetan zehar, Sopuerta nekazaritza lurraldea izan zen, batik bat. Baina sarritan uztak ez ziren familiak mantentzeko nahikoak eta honek biztanleak landa-lana beste zeregin batzuekin (egur-ikatz, esate baterako) uztartzera behartu zituen. Honen ondorioz, testigantzek jakinarazten digute inguru honetan [sei burdinola eta 13 errota](#) zeudela, bai eta haraneko errekaen inguruko zenbait noria ere.

## XIX. mendearen amaiera eta XX. mendea. MEATZARITZA JARDUERA

Nahiz eta udalerriko aukera ekonomiko urriek Gaztelara eta Ameriketara alde egitera bultzatu, XIX. mendearen amaieratik XX. mendeko lehenengo hamarkadetara familia ugari, berriro ere, itzuli ziren. Familia hauek atzerrian dirutza irabazi ostean, Sopuertara bueltatzea eta bertan jauregitxoak eta egoitzak eraikitzea erabaki zuten. Honek herriari inoiz eduki ez zuen bizitegi-itxura eman zion. Gainera, leinu batzuek herriari berari ere diru kopuru handiak eman zizkieten, kultura eta gizarte-ongizaterako. Alor honetan aipatzekoak dira, besteak beste, Quintana Garay eta Quintana Setián familiak, eman zuten dirutzagatik.

Baina Sopuertan eman zen beste aldaketa garrantzitsu bat meatzaritzari zor diogu. Izan ere, XIX. mendearen amaieratik XX. mendeko lehenengo hamarkadetara, Sopuertan meatzaritza izugarri garatu zen eta honek, haraneko ohiko bizimodua erabat aldatu zuen. Eta hau da, zalantzarik gabe, gure hurbileko historiaren atalik garrantzitsuena.

Enkarterriko beste udalerrietan bezala, Sopuertan argi eta garbi ikus daiteke, meatzaritza garatu aurreko eta osteko egoeraren arteko ezberdintasuna. Meatzetako beroaldiak 1890. eta 1920. urteen arteko epea iraun zuen. Eta honen ondorioz, urte hauetan, udalerriko biztanleria ia bost aldiz handiagotu zen (1.427 biztanle 1877. urtean / 5.027 biztanle 1910. urtean).

Alabaina, sektorearen krisialdia eta ustiapen batzuen geldierak, berriro ere, biztanleria gutxitzea ekarri zuen, biztanle askok Ezkerraldeko industriguneetara alde egin zuelako.

Denon oroitzapenak, despupulatzea eta meatzetako aztarnak (La Linde auzoko Labeak, batez ere) dira, garai batean lurralde honetan egon zen meatzaritza jardueraren lekukotasunik nabarmenak.

Beraz, Sopuertari dagokion meatze-iragana aldarrikatu behar dugu, batzuek ahaztuta daukatelako. Izan ere, ateratzen zen burdin mea Castro Urdialesera eta Saltacaballosera eramaten zen eta ez zen Bizkaian aintzakotzat hartzen.



← La Lindeko Labeak  
Antzinako trenbidea →

